

Hitzontzi

Bazkari ederra

Ipuin arabiarra - egokitua

IÑAKI ZUBELDIA



Bazen Bagdaden gizon pobre bat, Farid izenekoa, ongi hitz egina eta limurtzaile aparta. Zarpail jantzita ibiltzen zen, baina hala ere aberatsek bezalaxe pobreek estimu handian zuten bere hizjario aberatsagatik eta istorio harrigarriak kontatzeko zuen trebeziagatik. Bere jardunaren bukaeran sos batzuk ematen zizkion jendeak, haien



bihotza miresmeneko uholde batek edota erruki sentimenduak bat-batean eskuzabal bihurtuta. Emakumeak ziren bereziki bihotz zabaltasun hau modu nabarienean agertzen zutenak. Gozoa zen Farid, atsegina eta egokia hizketan, baina haren begietan nabari zen patuaren atzapar zitala, gizon jakintsua egoera tamalgarri hartaraino behehitu zuena.

Egun batean, agure bizartzuri baten etxera iritsi zen. Berak ez zekien, baina ate ondora irten zitzaien adineko gizon hura printze aberats bat zen.

—Zerbait emango al zenidake jateko, jaun agurgarria. Gaur oraindik mokadurik probatu gabe nago —erregutu zion Faridek aurpegi errukarriz.

—Zatoz barrura, elkarrekin bazkalduko dugu eta —erantzun zion printzeak.

Faridek uste izan zuen bizitzak irribarre egin ziola egun hartan, jangela dotore batera sartu baitzuen agureak. Urrezko eta zilarrezko ontziak

ikus zitezkeen han eta buztinezko pitxer, lorontzi eta txarro margotu bikainak ere bai. Belusezko gortina granateak goitik behera erortzen ziren, egoitzari halako dotorezia kutsua erantsiz eta zorua ehun leunez egindako tapiz koloreanitzek estaltzen zuten, pausoen leungarri. Diamante itxura zuten kristalezko argi zintzilikariak ageri ziren sabaian, zoko guztiak misterioz eta argi koloretsuz betez.

Aberastasun guzti haren erdian eserarazi zuen gizonak eskalea mahaian, bere ondoan, eta esan zion:

—Jan, lagun, jan lasai, mesedez. Eta ez izan lotsarik.

Eta printze bizartzuria jan itxurak egiten hasi zen, mahaian janaririk ez bazegoen ere. Faridek gauza bera egin zuen, gustura jaten ariko balitz bezala.

—Zer iruditzen zaizu ogi hau? Ez al da gozoa? —galdetu zion agureak eskalari.

—Arrazoi duzu, jauna —esan zion Faridek—. Sekula ez dut jan horren ogi bigun eta gozorik.

Tripazorriak barruan hozka sentitzen bazituen ere eskaleak, ez zion ezertxo ere adierazi agureari. Ogia jaten jarraitu zuen haren begirada irribarretsuaren pean.

Orduan printzeak esan zion morroiari:

—Mutil, ekarri beste platerkada bat.





Mutilak zerbait ekartzen zuen itxura egin zuen.

Gero, agureak esan zion Faridi:

—Tira, lagun, proba ezazu janari berri hau. Inoiz jan duzun arkume errerik samurrena da eta.

Jaten ari ziren itxurak egin zituzten biek, nahiz eta mahaia huts-hutsa egon.

—Ederra benetan! —aitortu zuen Faridek, apetitua onez jaten ariko balitz bezala, tartetan hatzak gozamenaz miaztuz.

—Asko pozten nau zu hain gustura jaten ikusteak —esan zion printzeak—. Jan dena platera ongi garbitu arte.

Gero, ahatea saltsan eskatu zuen, almendraz eta mahaspasaz horniturik.

Farid antzerkigile ona zen, baina sabela lehertu beharrean zeukan gosearen gosez eta jan zaporet-suak oroimenera ekarriz, deabruzko jolas haren bitartez.

Eta azkenik, ardo gozoa eta postrea eskatu zituen agureak.

—Nire jaun eta jabe —erregutu zion Faridek—, barkatu baina inoiz ez dut ardorik edaten; debekaturik daukat.

—Utzi txorakeriak eta edan pixka bat nik bezala —agindu zion agureak kopa bat ahora eramango balu bezala eginez. Faridek ere halaxe egin zuen.

Printzeak ardo gehiago bota eta edanarazi egin nahi izan zion berriro ere.

—Ez, jauna, ez nazazu behartu gehiago edatera, burua galduko dut eta.

—Tira, beste pixka batek ez dizu kalterik egingo. Edan nirekin batera —erregutu zion gizonak.

Eta biek beste trago luze bat egin zuten.

Farid mahaian balantzaka hasi zen.

—Zer duzu, gizona? Ez al zegoen bikaina nire ardoa? —galdetu zion.

—Mai kauna, baina uste dut moozkoortzen hasii naaizzela —esan zuen Faridek hizmotelka.

Eta muturreko bat eman zion agure bizarzurriari.

—Baina zer egiten duzu? Erotu egin al zara? —galdetu zion printzeak.

—Baarkatu, kauna, eesan dizut eez nagoela ohi-tuta edaten. Eta haala ere, edanarazi egin didazu. Moozkortu egin naiz eta ez nekien zeer egiten ari nintzen. Barkamena eskatzen dizut.



Printze zaharra txundituta geratu zen gizon haren egonarriaz eta umoreaz. Eta haserretu orde, irribarrez esan zion Faridi:

—Zu bezalako pertsona baten bila nenbilen aspalditik. Goseak egon arren, nire broma guztiak agoantatu dituzu eta, azkenean, mozkor plantak egin dituzu edozein txerpolarik baino hobeto. Nire lagun izateko adina merezimendu egin duzu gaur.

—Jaun txit agurgarria, barka bekit nire atrebimendua. Ez naiz sekula gehiago mozkortuko. Nire hitza ematen diot.

—Utzi itxurakeriak, eta orain bai, benetan bazkalduko dugu —jakinarazi zion agureak.

Eta bere zerbitzarietara deitu zien:

—Atondu ezazue mahaia platera eta mahai-tresna dotoreenekin.

Platera, edalontzi eta mahai-tresna distiratsuak ekarri zituzten zerbitzariak. Farid sinestu ezinik zegoen, ipuin bat amesten ari ote zen ez zekielarik.

—Orain ekarri sukaldean dauden janaririk ederrenak —eskatu zuen printzeak.

Zerbitzariak joan-etorri bizian betetzen zituzten agurearen aginduak. Tartetan gurkerak egiten zizkieten printzeari eta Faridi begirunez.

Eskaleak sekula jan zituen janaririk gozoenak jan zituen egun hartan printzearekin batera. Baina oraingoan benetako janariak ziren. Denbora luzean pasatako goseen ordain bikaina izan zen oturuntz hura. Sabela bete arte jan zuen Faridek, baina badaezpada ere, ez zuen ardorik probatu nahi izan. Eta printzeak, haren ukabilkadaren igurtziaren jakitun, ez zion gehiago ardoa edateko eskatu.

Postretan musika arinak jotzeko agindu zuen agureak eta dantzariak aritu ziren Fariden bazkaria alaitzen.

Bazkaria bukatutakoan, hitz-aspertu luze bat izan zuten agureak eta eskaleak. Printzea txundituta zegoen Fariden etorriaz eta jakinduriak, ez baitzegoen gairik hark hitz egokiz jorratu eta argituko ez zuenik. Agurea eskalearen lagun egin zen eta jauregian hartu zuen aholkulari eta lagun min bezala.

